

Astearte Musikalak - Xiaolu Zang

Astearte Musikalak

Vital Fundazioa Kulturunea

A Aretoa

2025eko urtarrilaren 21a

19:30ean

8€



Xiaolu Zang Txinako iparraldean jaio zen 1999an, eta 10 urte zituela ekin zien ikasketa profesionalei, Pekingo Musika Kontserbatorio Nagusiko erdi-mailako graduan onartua izan zenean. Urte horietan hainbat sari irabazi zituen lehiaketa nazionaletan. Geroago, Alemaniara joan zen bizitzera, eta Hannoverko Musika, Drama eta Komunikabideen Unibertsitatean jarraitu zituen ikasketak 2017an.

2022ko maiatzean ZF Music Prize-n lehenengo saria irabazi ondoren aitortu zen bere talentua, “ulermen musikal sakonena, zehaztasun eta birtuosismo gorena, barne ahalmen sortzaile handia eta soinu kolore ia sinestezina” erakutsi baitzituen. Hiru hilabete geroago, bigarren saria eman zioten Santanderko Paloma O'Shea Nazioarteko 20. Piano Lehiaketan. Veronako Nazioarteko Piano Lehiaketa ere irabazi zuen. Duela gutxi María Canals Nazioarteko Musika Lehiaketa irabazi du.

Informazioa

Interpretatzailea

Xiaolu Zang, piano-jotzailea

Programa

Bachen, Schumannen, Schuberten, Szymanowskiren eta Prokofieven lanak

Sarrerak

Kantaldi bakoitzerako sarrerak 8 euroan erosi ahal izango dira Kordoï Etxean (Aiztogile kalea 24, behea) edo online hurrengo formularioaren bidez. Halaber, emanaldi bakoitzerako sarrerak kontzertu-egun berean egongo dira eskuragarri Kulturunean bertan, emanaldi bakoitza baino ordubete lehenago, eserlekurik balego.

****Mugikortasun urriko pertsonentzako eserlekuak, jarri harremanetan Vital Fundazioarekin.***

Sarrera(k) erosi